



LAN ESKAINTZA: URIOLA.EUS PLATAFORMAK KAZETARIA BEHAR DU

Arloa: Kazetaritza / Ikus-entzunezkoak / Euskalgintza

Eskaintzaren deskribapena: BLB KOMUNIKAZIOA KOOP. ELK. kazetari bila dabil 4 hilabetez URIOLA.EUS plataforma digitalean aritzeko. Jardunaldi osoa eskaintzen dugu Deustuko Berbaizu Euskara Elkartearen bulegoan.

Oinarrizko baldintzak:

- Ikasketak kazetaritza, ikus-entzunezkoetan edo antzekoetan.
- Euskara maila altua idatziz zein ahoz.
- Ikus-entzunezko tresnen erabilera.
- Bilboko eta auzoetako euskalgintza eta gizarte mugimendua ezagutzea.

Kontuan hartuko da:

- Erredakzio gaitasuna eta esperientzia.
- Sare sozialak erabiltzeko trebetasuna.
- Lan taldean aritzeko gaitasuna.
- Grabazio eta edizio tresnen erabilera: Premiere eta Photoshop bereziki.
- HTML eta Google Analytics tresnen ezagutza.
- Berbaizuko koordinazio bileretan parte-hartzeko prestutasuna.
- Berehala hasteko prestutasuna.

Langilearen zereginak:

- Uriola.eus plataforma digitalerako albisteak sortzea eta argitaratzea. Eduki propioak sortzea, bai idatziz, zein ikus-entzunezko euskarrietan.
- Kolaboratzaile sarea kudeatzea eta handitzea.
- Lan komertziala: publizitatea bilatzea, lortzea eta kudeatzea.

Lanpostuaren zehaztapenak:

- 4 hilabeteko iraupena, urtebetera luzatzeko aukerarekin.
- Jardunaldi osoa, astean 40 ordu, astelehenetik ostiralera.
- Bulegoa Deustuko Berbaizu Euskara Elkartearen egoitzan (Ramon y Cajal 42 behe, 48014).
- Lan kontratua azaroaren 2an hasiko da.

Hautaketa prozesuaren jarraibideak:

- Curriculum eta aurkezpen gutuna bidaltzeko epea: urriaren 20tik 24ra.
- Elkarrizketak eta hautaketa: urriaren 26tik 29ra.
- Lan kontratuaren hasiera: azaroak 2.

Bidali zure CVa eta aurkezpen gutuna
bilbokouriola@gmail.com helbidera.